

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

LEIOAKO UDALA

6413

IRAGARKIA, Leioako Udaleko hirigintzako erdi-mailako teknikari lanpostu bat betetzeko lehiaketa-oposizio irekiaren deialdiari buruzkoa.

Alkatetzaren 2021eko urriaren 27ko 3902 Dekretuaren bidez, hirigintzako erdi-mailako teknikari lanpostua betetzeko lehiaketa-oposizio irekiaren deialdia onartu zen. Lanpostu hori administrazio bereziko eskalakoa, azpieskala teknikokoa eta erdi-mailakoa da.

Deialdiaren iragarkia eta oinarriak 2021eko azaroaren 18ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 222. zenbakian, argitaratu dira.

Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hogeit hamar egun baliodunekoa izango da, deialdiaren iragarkia nahitaez argitaratu behar den azken aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Leioa, 2021eko abenduaren 15a.

Alkatea,
IBAN RODRIGUEZ ETXEBARRIA.